

## Funtsezko Jarduerak

Gure aplikazioa eta web orrialdea funtzionatzeko, lehen azaldu dugun bezala, hainbat pausu jarrituko ditugu gure helburua betetzeko.

Hasteko, behin **programazioa** eginda eta dominio erosita dagoela gure bezeroen datu pertsonalak, adibidez posta elektronikoa edo mugikor zenbakia, gorde eta almagaznatu beharko ditugu.



Gero, gure **softwerra** informazioa elkar partekatzeko izango denez (hainbat sare sozialetan bezala), zihurtatu behar dugu ehuneko ehuneko zihurra dela arazorik ez egoteko.

Jarraitzeko, ziurtatu behar dugu ez dagoela arazorik egongo gure aplikazioa **App Storen** eta **Play Storen** egoteko eta deskargatzeko. Eta erabileran arazoak egonez gero gurekin harremanean jarri ahal izango dira posta elektronikoen bitartez, eta zerbitzu azkarra eta eroso izango da.



Bestalde, oso pausu garrantzitsua izango da gure aplikazioaren publizitatea egitea pertsona askori zabaltzeko. Iragarriak jartzeko helburua dugu hainbat web eta aplikazioetan, hori bai, gurekin zer ikusia izan beharko dute. Adibidez, garraio-bide konpainiak, pisuak bilatzeko konpainiak, eta sare sozial gehienetan.

Gure aplikazioa besteekin konparatuz, berrikuntzak ditu. Beste aplikazioetan, herriz aldatzean ez dizu jendea ezagutzeko ezta leku ohikoenak ezagutzeko

aukerarik ematen. Gainera, aukera ematen dugu lana modu errazago batean bilatzeko eta aurkitzeko eta oso efizientea da.